

*Emakume bat menperatuta dagoen bitartean,
ez gara libre izango*

PASAIKO II. BERDINTASUN PLANA

2023-2027

AURKIBIDEA

| | |
|--|----|
| ▶ Ekintzarako abiapuntuak | 3 |
| ▶ Pasaiaiko II. Berdintasun Plana egiteko prozedura | 6 |
| ▶ Pasaiaiko II. Berdintasun Planaren printzipio gidariak | 8 |
| ▶ Pasaiaiko II. Berdintasun Plana arloz arlo | 11 |
| 1. Gobernu ona | 12 |
| 2. Emakumeen ahalduntzea | 17 |
| 3. Ekonomiak eta gizarte antolakuntza eraldatzea | 21 |
| 4. Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak | 25 |
| ▶ Planaren garapena eta ebaluazio sistema | 29 |
| ▶ Planaren komunikazioa | 35 |

EKINTZARAKO ABIAPUNTUAK

Pasaian (Donibane, Antxo, Trintxerpe eta San Pedro) 2008an egin zen emakumeen egoeraren gaineko diagnostiko parte-hartzailea. Barrutietako emakumeen bizimodua, beharrak eta mugak azalerratu ziren horren bidez, eta, ondorioz, Berdintasun Arloa eta Jabe-kuntza Eskola sortu ziren. Hori eta gero, proiektuak zein ekintzak lau barrutietara egokitzeko nahiz udal arlo guztien eta elkarteen parte hartzea bermatzeko, 2015ean diagnostikoa berritu zen eta 2016an horretan oinarritutako Pasaiaiko I. Berdintasun Plana adostu zen. Askotarikoak izan dira Berdintasun Arloak egindako proiektuak eta ugariak Jabe-kuntza Eskolatik aurrera eramandako ekintzak.

2016-2020ko iraupena izan du planak eta gobernantzako ildoak garatzeaz gain, hiru esku hartze esparru zehaztu zituen: Balioak aldatzea eta emakumeak ahalduntzea, gizarte antolakuntza erantzunkidea, eta emakumeen aurkako indarkeria. Helburua izan da Pasaiaiko Udalaren berdintasun politikak sistematizatu eta koordinatzea eta emakumeen eta gizonen berdintasunerantz ekitea, egun dauden diskriminazioak gutxitzeko.

Pasaiaiko I. Berdintasun plana bukatutzat eman eta gero, 2008tik gaur egunera Pasaian berdintasun politikek izan duten ibilbidea ebaluatu dugu eta horretan oinarrituta datozen urteetarako

ekintza proposamena da jarraian jaso duguna; hots, **Pasaiaiko II. Berdintasun plana** osatu dugu.

Berau osatzeko, ebaluazioan antzemandako hutsuneetatik abiatu gara. Pasaiaiko udalean berdintasun alorra martxan jarri zenetik aldaketa nabariak egon dira udalean eta herrian, hots, emakumeen egoeran. **Pasaiaiko udalean lan egiteko prozedurak eta ikuspegiak aldatu** ditu, eta zenbait sailen plangintzak ere. Aipagarriak dira Gizarte Ekintzako Saila eta horren barruan Migrazio eta Aniztasunarekin egindako lana. Beste sail askorekin ekarri du koordinazioa, herrian martxan dauden egitasmoak bultzatuta (bereziki Eskubidean programa, eta indarkeria matxistari aurre egiteko erakundeen arteko jarduera protokoloa), eta, era horretan, sail edota alor asko busti dira pixkanaka ikuspegi feministarekin.

Ezin dugu esan ordea zehar-lerrotasuna edo *maistreaming*-a aplikatzeko estrategia bateraturik dagoenik, eta sailez sail berdintasuna sustatzeko planifikaziorik dagoenik. Baina badira baldintzak sailen artean hartu eman gehiago izateko, eta egitasmo zehatzetatik harago berdintasun estrategia bateratua gauzatzeko. Horretarako ezinbestekoa izango da teknikarien eta politikarien arteko elkarguneak indartzea, formazio zehatza eta praktikoa

eskaintzea, **berdintasunarekiko konpromisoa** indartu dadin. Norabide horretan, berdintasun alorreko zein beste sailen planifikazioak berdintasun ikuspegitik osatu eta indartzeaz gain, ezinbestekoa da **aurrekontuan konpromiso politiko horrek isla izatea**, eta diru partidak igotzea.

Herria ere aldatu da, eta horrekin batera emakumeen bizi eta lan baldintzak. Administrazio publikoak eskuhartzeko ibilbideak, eta lan egiteko prozedurak aldatzeak badu eraginik emakumeen egoeraren hobekuntzan, nahiz eta, zalantzarik gabe, horrekin ez den nahikoa. Horregatik, ezinbestekoa izan da balioen aldaketarako eta emakumeen ahalduntzerako martxan jarritako egitasmoak. Pasaiaiko Jabekuntza Eskola emakumeen parte hartzea eta antolakuntza areagotu ditu eta kontzientzia feminista zabaltzeko lan irmoa egin da. Gainera bertan eskainitako tailer edota prozesuen ondorioz, emakumeen saretzea areagotu da haien artean ezagutzeko, laguntzeko eta elkarbizitzako balio izan du.

Aipatu dugu aurretik ere: **oraindik erronka handia da Pasaiaiko emakume sektore zabalagoengana iristea, eta ahalduntze prozesu horiek indartzea**. Baina bide polita ari da egiten herrian. Horrenbestez, emakumeekin ez ezik **mutil zein gizonen balioak aldatzeko, eta maskulinitate hegemonikoetatik aldatzeko** prozesuak ere sustatu behar dira.

Horrez gain, emakumeen ahalduntzea ezin du soilik eskolara mugatu eta parte hartze sozio-politikorako estrategia integrala behar

da, **kontzientzia feminista indartzeko sentsibilizazio** kanpainak egin behar dira, eta Pasaiaiko emakumeen ekarpenak ikusarazi. Gainera, emakumeen eta elkartearen arteko saretzea berdintasun politiken garapen eta arrakastarako oinarri direla jakitun, **Berdintasun Mahaia bezalako espazioak indartu** behar dira. Elkarteeetako harremanak sustatu behar dira, mahaia elikatu, konfiantzarako espazio bilakatu, diru laguntzak handitu, eta hartu eman iraunkorra izan. Izan ere, horiek dira udaletik komunitatera, herrira salto egiteko zubia, eta era berean, askotariko emakumeekin hartu emana dutenak eta haien errealitateak ezagutzen dituztenak. Horregatik, **egiturak eta espazioak sortzea, mantentzea, eta baliabideak eskaintzea ezinbestekoa** da.

Indarkeria matxistari aurre egiteko estrategia garatua izan duen arren, arreta integrala bermatzeko neurriak izan dira lehenetsitakoak. Horregatik, **prebentzioan, erreparazio kolektiboan eta tratu onen hedapenean** lanean jarraitu beharra dago.

Bukatzeko, ezin aipatu gabe utzi **zaintza lanen demokratizazioarekin** dagoen erronka. Ezin dugu ahaztu emakumeon zapalkuntzaren oinarri dela lanaren banaketa sexuala, eta zaintza lanak emakumeei egokitzen zaizkiela, era naturalean gainera. Haien zaintzaile nagusiak, bizitza sostengatzeko ahaleginean jarduten dutenak, eta zaintza lanen zama dutenak. Horregatik, benetan Pasaiaiko emakumeen bizi baldintzak aldatzeko, eta duintzeko, zaintza lanen gaineko hausnarketa sustatu behar da eta

zaintzaileen bizi eta lan baldintzak eraldatzeko politika publikoak martxan jarri. **Ez da soilik Berdintasun Arloko lana izango, baina ezinbestean ikuspegi feminista behar duen gaia da zaintzarena.**

Ezinbestekoa da, Pasaiako herritarren bizitzak hobetzeko, **berdintasunarekiko konpromiso politikoa indartzea**. Hala ere, erakutsi bezala, konpromiso horrek **ekintza materialekin lotuta** egon behar du. Ezinbestekoa da udal **baliabideak** berdintasun estrategiaren mesedetan jartzea, eta herritarren beharretara egokitutako politika publikoak garatzen jarraitzea, komunitatea ardatz dutenak.

PASAIKO II BERDINTASUN PLANA EGITEKO PROZEDURA

Ebaluazioa bukatuta, hurrengo faseari ekin genion. Horiek horrela, honakoak izan dira egin beharrekoak:



• DIAGNOSTIKOAREN ONDORIO NAGUSIEN ITZULERA

1. Fasean egindako ebaluazioa oinarri hartuta diagnostikoaren ondorio nagusiak gizarteratu dira, horiek izango baitira Plan Berrirako proposamenak jasotzeko lan tresna nagusi. Ebaluazioa tresna bat da, errealitatearen eraldaketarako eremu eta beharrak identifikatzeko.

• PARTE HARTZE KANALAK BERRABIARAZI: DIAGNOSTIKOAREN ONDORIOAK GIZARTERATU ETA PROPOSAMENAK JASO. PLANA KALERA!

Diagnostikoaren ondorio nagusiak kalera atera dira, ekarpen eta proposamenak jaso dira, ohiko parte hartze kanaletatik harago. Bereziki neska gazteekin egin da lana, proposamenak eta ekintzak haien espazio naturaletan jasotzeko: eskolak, gaztelekuak eta kalea.

- **PARTE HARTZE SAIOAK: ONDORIOEN AZTERKETA KOMUNITARIOA ETA PROPOSAMENAK**

Parte hartze marko nagusiak izan dira, deialdi zabaleko tailer eran garatu diren saioak; talde espezifikoak sortu dira emakume orotariko profilak jasotzeko.

2. faseko saioetan, diagnostikoaren *Ondorioen Azterketa Komunitarioa* teknikaren bidez, talde txikietan diagnostikoaren ondorioen inguruan eztabaidatu, leheneste ariketa egin eta eraldaketarako proposamen zehatzak definituko dira.

Saiook egin ditugu: Berdintasun Mahaia, Gizarte ekintzako ekipo teknikoa, Saitetako teknikariak, Udal ordezkariak, Jatorri askotariko emakumeak.

- **BERDINTASUN PLANAREN ZIRRIBORROAREN ERREDAKZIOA**

Talde teknikoa arduratu da 2. Fasean zehar jasotako ekarpenen sintesi dokumentua sortzeaz: Berdintasun plan berriaren zirriborroa.


- **ITZULERA, KONTRASTE ETA AMAIERAKO TXOSTENA**

Dokumentuaren itzulpen eta kontrasterako epea zabaldu da, ekarpen eta zuzenketa berriak txertatzeko. Kontrasterako talde motoreaz gain, talde eragile estrategikoetara jo dugu; hots, gizarte ekintzako talde teknikora zein sail arteko koordinazio gunera.

- **PASAIAKO II BERDINTASUN PLANA ADOSTU ETA HEDATZEKO UNEA**

Zirriborroa behin osatuta Udal batzarrean adostuko da eta jendarteratzeko plana egingo da.

PASAIAKO II. BERDINTASUN PLANAREN PRINTZIPIO GIDARIAK



• IKUSPEGI FEMINISTA

Berdintasun estrategiak eta planak abiapuntu izango du teoria feministek sortzen duten ezagutza eta Mugimendu Feministak dituen ildoak. Kontuan hartuko da orohar agenda feminista zein den, eta, bereziki, herriko mugimenduak atzematen dituen beharrak, ikuspegia eta lanerako ildoak. Ikuspegi feminista txertatuko da egiten dugun horretan, eta hori aurrera eramateko nolakotasunean.

• GENERO BERDINTASUNA

Errealitatearen analisia egiterakoan, emakume eta gizonen artean dauden bereizkeriak antzemateko mekanismoak txertatzeaz gain, herritarren arteko berdintasuna bermatzea izango da plana bustiko duen oinarria. Horretarako aukera berdintasuna bermatu behar da, eta baliabideak eskaini hori egikaritzeko.

• INTERSEKZIONALITATEA

Pasaiako emakume guztiak ez dira berdinak, ez daude zapalkuntza ardatz berdinak gurutzatuta, eta askotariko posizio sozialetan daude. Ezinbestekoa izango da intersekzionalitate ikuspegitik begiratzea Pasaiako emakumeen errealitateari, genero zapalkuntza beste zapalkuntza sistema batzuekin ere artikulatzen delako; hala nola klasea, arraza, jatorria, adina, aniztasun funtzionala, hizkuntza, identitate sexuala... Planak ezin du izaera homogeneousatzaile izan, eta begirada konplexua behar du emakume guztien errealitate eta beharretara egokitzeke.

• ELKARBIZITZA : ANIZTASUNAREN AITORTZA ETA KUDEAKETA

Askotarikoak gara, antzekotasun eta ezberdintasun askorekin. Posizio sozialak markatuta bizi gara, eta hortik abiatzen dira gure beharrak eta nahiak. Horiek aitortu egin behar dira, eta eredu bakarretatik urrun, aniztasuna kudeatzeko mekanismoak jarri. Asko ikasi dugu elkarrengandik, eta askoz gehiago dugu elkarrekin ikasi eta egiteko. Horretarako, parte hartzeko modu, denbora, guneak... arreta handiz zaindu behar ditugu. Pasaian, beste hainbat tokietan bezala, elkarbizitzarako oinarri sendoan jarri nahi ditugu, eta horretarako, ezinbestekoa da aniztasunetik abiatzea.

• EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

Esku artean dugun planeko ardatza izateaz gain, jarduera guztia busti behar duen oinarri ere bada. Aurretik aipatu bezala, askotarikoak dira emakumeen bizipenak eta orotarikoak ere diskriminazioei aurre egiteko estrategiak. Horiek gure alor intimoan, pribatuan eta publikoan eragiteko balio behar dute, baina beti ez dugu egoeraren irakurketa kolektiboa egiteko baliabiderik (denbora, espazioa, eta abar), eta, are eta gutxiago, zapalkuntzari batera aurre egiteko bitarteko partekaturik. Horregatik, garrantzitsua da sistema patriarkalaren eta berak sortzen dituen bereizkerien jabe izatea, eta gaur egun nola eragiten duten jabetzea. Esperientzien elkartruketik sortzen da askotan dauden minen kontzientzia, jakin-mina; egiten gara minaren jabe eta ahaldundu zein boteretzen gara.

• ELKARREKIKOTASUNA

Emakumeen eskubideetan aurrera egingo badugu, herritar guztion bizi baldintzak aldatzetik izango da. Eremu publikoan aldaketak eragiten jarraitu behar dugu, baina ezin dugu pribatutzat dugun horretan ere arreta jartzea; izan ere, aldaketak sustraitzeko bizitzaren alor guztietan eragin behar ditugu aldaketak. Oraindik orain, sektore pribilegiatuak ditugu, eta horiei dagokie zaugarriagoak direnekiko ardurak hartzea, elkarrekikotasunean oinarrituta. Ezinbestekoa izango da arreta jartzea espazioaren banaketan, lan banaketan, segregazioan, aitortzan...

PASAIKO II. BERDINTASUN PLANA ARLOZ ARLO

1. GOBERNU ONA

Nazioartean aho batez dago onartuta herritarron arteko berdintasunean aurrera egiteko ezinbestekoak direla ezartzen diren legeri zein politika publikoekiko konpromisoak. Horretarako, ezinbestekoak dira demokrazia parte hartzailea, gardentasuna eta justizia soziala sustatzea. Horretarako, ikuspegi berdinzalea txertatu behar dugu jarduketa publikoan Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.4 artikulua jasotzen duen bezala:

3.4. artikulua. Genero-ikuspegiaren integrazioa.

Euskal herri-agintek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten. Lege honen ondoretarako, honako hau da genero-ikuspegia txertatzea: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontuan hartzea, eta, horretarako, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze eta ebaluazio-fase guztietan.

HELBURU ESTRATEGIKOAK:

- 1.1 Genero ikuspegia txertatzeko **formazioa eta trebakuntza** eskaintzea
- 1.2 **Lan prozeduretan** genero ikuspegia txertatzea
- 1.3 Sailen arteko **koordinazioa eta elkarlana** sustatzea
- 1.4 **Udalaren** lan arloan berdintasun ikuspegia txertatzea
- 1.5 **Sailetan** genero ikuspegia txertatzea: Zehar lerrotasuna

1.1 Genero ikuspegia txertatzeko formazioa eta trebakuntza eskaintzea

| HELBURU ZEHATZAK | EKINTZAK | ARDURADUNAK | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
|--|--|--------------------------------------|------|------|------|------|
| 1.1.1 Udal jarduera guztian genero ikuspegia txertatzeko teknikari zein langileei formazio iraunkorra eta trebakuntza eskaintzea | Berdintasuna zehar-lerro gisa txertatzeko formazioa eskaini udal sail guztiei. | Berdintasun arloa/GGBB | ● | ● | ● | ● |
| | Jarduera edo sail bakoitzari berariazko trebakuntza eskaini: Hirigintza genero ikuspegitik, kultura eta hezkuntza, kirola eta jarduera fisikoa, genero aurrekontuak... | Berdintasun arloa/GGBB/Sail bakoitza | | ● | ● | ● |
| | Genero ikuspegia txertatzeko gai konkretuen gaineko formazioa eskaini udal sail guztiei: Parte hartze sozio-politiko eta zaintza. | Berdintasun arloa/GGBB | | ● | | ● |
| 1.1.2 Udal ordezkarien sentsibilizazioa areagotzeko trebakuntza eskaintzea | Berdintasuna zehar-lerro gisa txertatzeko formazioa eskaini udal ordezkari guztiei, agintaldi bakoitzean. | Berdintasun arloa | | ● | | ● |
| | Jarduera edo sail bakoitzari berariazko trebakuntza eskaini. | Berdintasun arloa | | ● | ● | ● |

1.2 Lan prozeduretan genero ikuspegia txertatzea

| HELBURU ZEHATZAK | EKINTZAK | ARDURADUNAK | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
|--|---|--------------------------------------|------|------|------|------|
| 1.2.1. Udal komunikazioa genero ikuspegia txertatzea | Udal komunikazioetarako irizpideak adostu eta sail guztietan horren berri eman. | Berdintasun arloa | | | ● | ● |
| 1.2.2 Kontratu, hitzarmen zein diru-laguntzetan genero ikuspegia txertatzea | Diru laguntzen oinarri arautzaile berriak aztertu, berdintasun ikuspegitik. | | ● | | | |
| | Klausula sozialak, eta berdintasun klausulak txertatzeko prozedura adostea. | Idazkaritza | | ● | ● | |
| 1.2.3. Udaleko datuak sexuaren arabera bereizita jasotzea, genero azterketak egiteko | Udal mailako datuen bilketan sexuaren arabera jasotzeko erak egokitu erregistro, inprimaki eta datu baseetan. | Berdintasun arloa / Sail bakoitza | | ● | ● | ● |
| 1.2.4 Aurrekontuak genero ikuspegitik lantzea | Berdintasun arloko aurrekontua urtero progresiboki igotzen joatea, Euskal Autonomi Erkidegoko gainerako erakunde publikoen proportzioan | Berdintasun arloa / Idazkaritza | ● | ● | ● | ● |
| | Udal aurrekontuetan genero ikuspegia bermatzeko, sail bakoitzaren azterketa egitea. | Berdintasun arloa, eta sail bakoitza | ● | ● | ● | ● |

1.3 Sailen arteko koordinazioa eta elkarlana sustatzea

| HELBURU ZEHATZAK | EKINTZAK | ARDURADUNAK | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
|--|---|-----------------------------------|------|------|------|------|
| 1.3.1. Sailen arteko koordinazioa eta elkarlanerako egitura iraunkorrrak indartzea | Gizarte ekintzako koordinaziorako gunea sistematizatu (hilean behin). | Gizarte ekintza | ● | ● | ● | ● |
| | Eskubidean programako sailen arteko egitura indartzea: sail guztien parte hartzera neurriak hartzea . | Berdintasun arloa / Sail artekoa | ● | ● | ● | ● |
| | Unean uneko beharren arabera udal ordezkariekin hartu emana izatea. | Berdintasun arloa | ● | ● | ● | ● |
| 1.3.2 Sailen arteko koordinazioa eta elkarlanerako gunek sortzea | Sail bakoitzeko teknikariekin unean uneko gunek sortzea. | Berdintasun arloa / Sail bakoitza | ● | ● | ● | ● |

1.4 Udalaren lan arloan berdintasun ikuspegia txertatzea

| HELBURU ZEHATZAK | EKINTZAK | ARDURADUNAK | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
|--|--|--|------|------|------|------|
| 1.4.1. Udaleko langile (Teknikari, langileak eta kontratatutakoak) guztien artean erantzunkidetasuna sustatzeko neurriak aztertzea | Langileen beharretara egokitutako neurriak txertatzea. | GGBB | | | ● | ● |
| | Langileen asebetetze maila aztertzea. | GGBB | ● | ● | | |
| 1.4.2 Langileen arteko aniztasuna errespetatu eta jazarpena prebenitzeko neurriak eta egiturak errebisatu | <i>Jarduera protokoloa lan esparruan aniztasuna errespetatu eta jazarpen, arrisku psikosozial eta gatazka egoerak prebenitu eta jarduteko erakunde kultura sustatzeko tresna aztertu eta behar bada berritu.</i> | Berdintasun arloa/ GGBB | | ● | | |
| | <i>Jarduera protokoloa lan esparruan aniztasuna errespetatu eta jazarpen, arrisku psikosozial eta gatazka egoerak prebenitu eta jarduteko erakunde kultura sustatzeko egitura iraunkortu eta indartu.</i> | Berdintasun arloa/ GGBB | | ● | | ● |
| 1.4.3. Kontratazio publikoetan genero irizpideak txertatu | Berdintasun formazioa saritzea, feminizatu/maskulinizatu arloetan neurriak aplikatzea, emakume zein gizonen presentziak orekatzea... | Berdintasun arloa/ GGBB/Idazkaritza | ● | ● | ● | ● |

1.5 Sailetan genero ikuspegia txertatzea: Zehar lerrotasuna

| HELBURU ZEHATZAK | EKINTZAK | ARDURADUNAK | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
|---|--|---------------------------------|------|------|------|------|
| 1.5.1 Sail bakoitzaren lan prozedurak, ikuspegiak eta plangintzak aztertzea | Datozen lau urteetako udal proiektu nagusiak identifikatu eta genero ikuspegia txertatzeko prozedurak egokitzea. | Berdintasun arloa | | ● | ● | |
| | Sail bakoitzean genero ikuspegia txertatzeko baliabideak eskaintzea. | Berdintasun arloa/ Sail artekoa | | ● | ● | ● |
| | Elkarlanerako ildo estrategikoak definitu eta ardurak banatzea | Berdintasun arloa/ Sail artekoa | ● | ● | | |

2. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

Azken hamarkadetan, emakumeen ahalduntzea bultzatzea lehen-tasunezko ardatza izan da politika publikoetan, eta gizarteak demokratizatzeko prozesuen parte izan da; izan ere, beharrezkoa izan da emakumeak ahalduntzea, emakumeen hiritartasun-eskubideak eraikitzeko eta garatzeko, eta emakumeek gizartean parte hartzeko.

Marcela Lagardek dio ahalduntzea dela ahalmena izatea, gaitzea, eta nork bere burua aitortzea. Emakumeek sistema patriarkalean erabateko desautorizazioak jasotzen ohi dituzte, eta, horregatik, haien buruei baimena emateko prozesu gisa irudikatu behar ditugu ahalduntze prozesuak; gai sentitu behar dute, ondoren ekiteko ahalmena eta gauzak aldatzeko boterea izateko. Haien buruak baliolan jarri eta aitortzeko prozesuak dira, azken finean.

Horren haritik, erakundeen erronkak eta desafioak ardaztu behar dira, batetik, emakumeen eta emakume mugimenduen ahalduntze indibidual, kolektibo, sozial eta politikorako prozesuak babestuz, eta, bestetik, prozesu horiek ikusgarri eta iraunkor eginez.

HELBURU ESTRATEGIKOAK:

- 2.1 Emakumeen **ahalduntze indibidual eta kolektiboa** sustatzea
- 2.2 Emakumeen **partaidetza sozial eta politikoa** handitzea eta **inzidentziarako gaitasuna** garatzea
- 2.3 **Mugimendu Feministaren** aitortza eta elkarlana areagotzea

2. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

2.1 Emakumeen ahalduntze indibidual eta kolektiboa sustatzea

| HELBURU ZEHATZAK | EKINTZAK | ARDURADUNAK | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
|---|--|-------------------------------------|------|------|------|------|
| 2.1.1 Pasaiako Jabekuntza eskolako erronkei heltzeko prozesuak abiatzea | Pasaiako Jabekuntza eskola bakarra lau barrutietako errealitate zein beharretara egokitzeko proposamena gauzatzea. | Berdintasun arloa | ● | ● | ● | ● |
| | Neska gazteen parte hartzea sustatu eta ahalduntze prozesuak abiatzeko prozesua diseinatu, neska gazteen inplikazio zuzenarekin. | Berdintasun arloa | ● | ● | ● | ● |
| | Adineko emakumeen beharrak eta nahiak asebetetzea adineko emakumeen inplikazio zuzenarekin. | Berdintasun arloa | ● | ● | ● | ● |
| | Prozesu izaera indartzeko, eskolako ildo estrategikoak emakumeekin/parte hartzaileekin adostea. | Berdintasun arloa | ● | ● | ● | ● |
| | Parte hartzea indartu eta inklusiboa izan dadin prozesuak sustatzea. | Berdintasun arloa / Gizarte ekintza | ● | ● | ● | ● |

2. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

2.2 Emakumeen partaidetza sozial eta politikoa handitzea eta inzidentziarako gaitasuna garatzea

| HELBURU ZEHATZAK | EKINTZAK | ARDURADUNAK | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
|--|--|---------------------------------|------|------|------|------|
| 2.2.1 Pasaiaiko Berdintasun mahai indartu | Herriko elkarten arteko elkarbizitza sustatzeko prozesuak abiatzea. | Berdintasun arloa | ● | ● | | |
| | Komunikazio egokia eta inklusiboa lantzea | Berdintasun arloa | | ● | | |
| | Emakumeen parte hartzea handitzea | Berdintasun arloa | ● | ● | ● | ● |
| | Politika publikoen gaineko erabakiak hartzeko prozesuak abiatu: Gardentasuna, informazioa eta trebakuntza | Berdintasun arloa | ● | ● | ● | ● |
| | Urtez urteko plangintzak adostea | Berdintasun arloa | ● | ● | ● | ● |
| 2.2.1 Emakumeen parte hartze sozial eta politikorako dituzten oztopoen gaineko hausnarketa | Udaleko teknikari, langile eta ordezkarien artean oztopoen gainean hausnartzeko trebakuntza | Berdintasun arloa/sail bakoitza | | ● | ● | |
| | Herriko elkarten artean eztabaida sustatzea eta emakumeen parte hartzea handitzeko neurriak sustatzea (kultur elkarte, kirol elkarte...) | Berdintasun arloa | | | ● | ● |

2. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

2.3 Mugimendu feministaren aitortza eta elkarlana sustatzea

| HELBURU ZEHATZAK | EKINTZAK | ARDURADUNAK | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
|---|--|-------------------|------|------|------|------|
| 2.3.1 Pasaiako emakumeen etxeko prozesua abiatzea | Herriko elkarteekin espazioen gaineko eztabaida ematea. | Berdintasun arloa | ● | ● | | |
| | Mugimendu Feministak, zein berdintasunaren aldeko konpromisoa duten elkarten lana ikustarazteko lan egitea. | Berdintasun arloa | ● | ● | ● | ● |
| | Mugimendu feminista, zein berdintasunaren aldeko konpromisoa duten elkarteei baliabide ekonomikoak eta materialak handitzea (Diru laguntzak, espazioak, baliabideak...). | Berdintasun arloa | ● | ● | ● | ● |
| | Mugimendu feministarekin beharren araberako koordinazioa sustatzea. | Berdintasun arloa | ● | ● | ● | ● |

3. EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA

Gizarte patriarkalaren oinarria da sexuaren araberako lan banaketa, zeinak lanak, funtzioak eta prestigioak asimetrikoki banatzen dituen, emakumeak arlo ekonomikotik guztiz diskriminatuz. Enplegu arautuan egoera prekarioagoak pairatzen dituzte, soldata arrakala handia dago oraindik, eta balio sozial gutxienera lanpostuetan jarduten dute batik bat. Merkatu ez arautuan nagusi dira, eta horren baitan azpimarragarria deritzogu etxeko langileen egoera (garbiketa eta zaintza zerbitzuak eskaintzen dituzten langileak).

Lan merkatua ordea, eremu pribatuarekin uztartu beharrean daude emakumeak; izan ere, haiek dira nagusiki zaintza lanen ardur hartzen dutenak eta enpleguan eremuak bateratzeko neurriak hartzea behartuta daudenak, edo enpleguratzeko zailtasun handiak dituztenak.

Zainketa-lanak dira zainketa-beharrei erantzuteko egiten ditugun jarduerak, eta ez bakarrik familiaren esparruan ordaindu gabeko etxeko lan deitu ohi ditugunak. Zainketa-lanak izan daitezke diruz ordaindutakoak edo ez. Lanak diruz ordaintzeak esan nahi du prestazio-sistema baten bidez, zerbitzu publikoen bidez edo merkatuaren bidez –formalki zein informalki– ordaindu direla. Ordainduta ez badaude, lanak beste motibazio batzuegatik egin

daitezke, hala nola maitasunagatik eta elkartasunagatik, edo, aitzitik, sumisioagatik eta besteen ongizaterako betebeharragatik eta konpromisogatik. Ekonomia feministan egiaztatzen denez, lan horiek ordainduta egon zein ez, gizakion zaintza-premia oinarri-zkoak betetzearen lana emakumeengan uzten da, oro har, naturaltasunez. Gainera, lan horiek oraindik ez dira agertzen analisi makroekonomikoan, oso modu prekarioan egiten dira, eta munduko emakume guztien bizitzak baldintzatzen dituzte, nahiz eta ez dituen berdin berdin gurutzatzen.

HELBURU ESTRATEGIKOAK:

- 3.1 **Zaintza lanen demokratizaziorantz pausoak ematea**
- 3.2 Gizon eta emakumeen arteko **erantzukidetasuna** sustatzea
- 3.3 **Hezkidetza** programak herrian sustatzea
- 3.4 Emakumeen **autonomia ekonomikoa** sustatzea

3. EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA

3.1 Zaintza lanen demokratizaziorantz pausoak ematea

| HELBURU ZEHATZAK | EKINTZAK | ARDURADUNAK | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
|--|--|---|------|------|------|------|
| 3.1.1 Zaintza lanen balio sozial eta politikoa aitortzea | Ekonomia feministaren teoria eta praktikak herrian hedatzea. | Berdintasun arloa | ● | | | |
| | Zaintza langile profesional eta ez profesionalen lan zein bizi baldintzak hobetzeko proposamenak garatzea. | Berdintasun arloa, GGBB, Kontratazioa eta Gizarte Ekintza | | ● | | |
| | Zaintzaileen arteko guneak sortzea, ahalduntzearen ikuspegitik: Ongi zaintzen ikasteko taldearen sustapena | Berdintasun arloa | ● | ● | ● | ● |
| | Zaintza lanei buruzko sentsibilizazio lana egitea, ikustarazteko, eta balio soziala emateko. Zaintzaileak formatzea, zaintza duina bermatzeko. | Berdintasuna, Gizarte Ekintza | ● | ● | ● | ● |
| | Pasaia <i>Herrilab</i> proiektuan genero ikuspegia txertatu: agentzian eta autonomian oinarritutako arreta eredua sustatu. | Gizarte ekintza | ● | ● | | |

3. EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA

3.2 Gizon eta emakumeen arteko erantzunkidetasuna sustatzea

| HELBURU ZEHATZAK | EKINTZAK | ARDURADUNAK | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
|---|--|-------------------------|------|------|------|------|
| 3.2.1 Zaintza lanen banaketa justoago batenrango prozesuak abiatzea | Zaintzen duten gizonen arteko espazioak sortzea. | Berdintasun arloa | | ● | | |
| | Gizonen artean erantzunkidetasuna oinarri duten ekintzak bideratzea. | Berdintasun arloa/ GGBB | | ● | | |
| | Familietan erantzunkidetasuna sustatzeko mediazio lana sustatzea | Gizarte ekintza | | | | ● |

3.3 Hezkidetza programak herrian sustatzea

| HELBURU ZEHATZAK | EKINTZAK | ARDURADUNAK | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
|---|--|---|------|------|------|------|
| 3.3.1 Herriko ikastetxeetan hezkidetza planak sustatu | Eskubidean programaren barruan, hezkidetza- ren estrategia barneratzeko lana egin. | Berdintasun arloa/ Gazte- ria/ Kultura eta hezkuntza | ● | ● | ● | ● |
| | Ikastetxeekin hezkidetza programa integral eta iraunkorrak txertatzeko aukerak aztertu. | Berdintasun arloa/ Kultu- ra eta hezkuntza | | ● | | |
| | Guraso elkarteekin hezkidetza oinarritutako trebakuntza eskaini. | Berdintasun arloa/ Kul- tura eta hezkuntza/ Gaz- teria/ Haur eta nerabeen eskubideen arloa | | | ● | ● |

3. EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA

3.4 Emakumeen **autonomia ekonomikoa** sustatzea

| HELBURU ZEHATZAK | EKINTZAK | ARDURADUNAK | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
|---|--|--|------|------|------|------|
| 3.4.1 Eskualdean eta herrian enplegu politiketan genero ikuspegi txertatu | Ekonomia sozial eta eraldatzailearen gaineko informazioa zabaldu. | Oarsoaldea Garapen agentzia | | ● | | |
| | Oarsoaldeako garapen agentziarekin emakumeen enplegu ibilbideak sustatu. | Oarsoaldea Garapen agentzia eta berdintasuna | | ● | ● | ● |
| | Sektore feminizatuak identifikatu, eta bestelako ibilbide profesionalak garatzeko baliabideak eskaini. | Garapen agentzia eta berdintasuna | ● | ● | | |

4. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa larria da. Gizonek emakumeen aurka emakume izateagatik baliatzen duten indarkeria da, eta hala baliatzen da genero diskriminazioen ondorioz eta gizarte eredu ez pareko eta hierarkiko honetan gizonek emakumeekiko duten boterearen ondorioz, emakumeak mendekotasun egoeran baitaude haiekiko. Hori dela eta, eskubideak bermatzeko ikuspegitik, ardatz honen helburua da EAEko erakunde publikoen ekintza bideratzea, emakumeek eta beste biktima batzuk –haien seme-alabak, esaterako– indarkeriarik gabe bizi daitezen.

Emakumeen aurkako indarkeriatzat hartzen da generoan oinarritutako indarkeria oro, zeinak berekin dakarren edo ekar dezakeen emakumeek kalte edo oinaze fisikoa, sexuala, psikologikoa eta ekonomikoa jasatea, baita mehatxuak, bortxa eta askatasun gabetze bidegabeak ere, bizitza publikoan edo pribatuan.

HELURU ESTRATEGIKOAK:

- 4.1 Indarkeria matxistaren **prebentzioa**
- 4.2 Emakumeei **arreta integrala** eskaintzea
- 4.3 Indarkeria sufritu duten emakumeen **erreparazioa**

4. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

4.1 Indarkeria matxistaren prebentzioa

| HELBURU ZEHATZAK | EKINTZAK | ARDURADUNAK | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
|--|---|---|------|------|------|------|
| 4.1.1 Indarkeria matxista prebenitzeko sentsibilizazio lana egitea | Indarkeria matxistaren dimentsioa ezagutzeko kanpainak diseinatu. | Berdintasun arloa/Gizarte Ekintza | | ● | ● | |
| | Adineko emakumeen indarkeriaz sentsibilizazio eta ahalduntze prozesuak sustatzea. | Berdintasun arloa/Gizarte Ekintza | ● | ● | | |
| | Zurrunmuru matxisten gaineko trebakuntza eskaini. | Berdintasun arloa/GGBB | | ● | | ● |
| | Jaietan eraso matxistak prebenitzeko, eta identifikatzeko elkarlana sustatu jai batzorde zein kultur eragileekin. | Berdintasun arloa/Kultura eta hezkuntza | ● | ● | ● | ● |
| | Indarkeria matxistaren prebentzio programetan parte hartu. | Berdintasun arloa/Kultura eta hezkuntza | ● | ● | ● | ● |
| | Maskulinitate tailerrak gazte zein helduentzat. | Berdintasun arloa | ● | ● | ● | ● |
| 4.1.2 Indarkeria matxistak Pasaian duen eraginaz azterketa egitea | Indarkeria matxistaren eragina neurtzeko ikerketa lerro berriak zabaltzea. | Berdintasun arloa/Gizarte ekintza | | | ● | ● |

4. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

4.2 Emakumeei arreta integrala eskaintzea

| HELBURU ZEHATZAK | EKINTZAK | ARDURADUNAK | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
|--|--|--|------|------|------|------|
| 4.2.1 Arreta integrala bermatzeko bitartekoak eskaintzea | Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeen esku hartzeko jarraibideak eta gogoetak, ahalduntzearen ikuspegitik gida zabaldu. | Gizarte ekintza | ● | | | |
| | Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeen esku hartzeko jarraibideak eta gogoetak, ahalduntzearen ikuspegitik gidaren teknikariak zein langileei argibideak eskaini. | Berdintasuna, GGBB eta Gizarte ekintza | ● | ● | | |
| | Indarkeria matxistaren aurre egiteko dauden baliabideak sozializatu. | Berdintasun arloa/Gizarte ekintza | ● | | ● | |
| 4.2.2 Indarkeria matxista bizi duten emakumeen arretaren hobekuntzarako erakundeen arteko jarduera eta koordinazioa protokoloa indartu | Pasaiako erakunde guztien artean protokoloa adostu. | Berdintasun arloa/GGBB | ● | ● | | |
| | Indarkeria matxista bizi duten emakumeen arretarako egiten diren ibilbideak sistematizatu. | Berdintasun arloa | ● | ● | ● | ● |
| | Indarkeria matxista sufritu duten emakumeei begirako saretze/ahalduntze kolektiborako guneak eskaintzea. | Berdintasun arloa/Gizarte ekintza | ● | ● | ● | ● |

4. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

4.3 Indarkeria sufritu duten emakumeen **erreparazioa**

| HELBURU ZEHATZAK | EKINTZAK | ARDURADUNAK | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
|--|---|--|------|------|------|------|
| 4.3.1 Indarkeria matxista sufritu duten emakumeen erreparaziorako osatze estrategiak diseinatzea | Pasaian indarkeria matxistari erantzuteko baliabideak eskaintzea. | Berdintasun arloa, Gizarte Ekintza, Migrazio eta aniztasun arloa | ● | ● | ● | ● |
| | Indarkeria matxista egoeretatik atera diren emakumeen erreferentziak lantzea. | Berdintasun arloa | | | ● | ● |

PLANAREN GARAPENA ETA EBALUAZIO SISTEMA

Pasaiako II. Berdintasun Plana garatzeko berariazko egiturak behar dira, baina zehar lerrotasun printzipioa txertatzeko, ezinbestean plana garatzeko ardura Pasaiako Udaleko teknikari, langile eta ordezkari guztiena izango da. II. Planaren berme nagusiak, hala ere, honakoak izango dira:

- ▶ Berdintasun arloa
- ▶ Gizarte Ekintza saila
- ▶ Berdintasun mahaia
- ▶ Sail artekoa
- ▶ Udaleko sail bakoitza

Pasaiako II. Berdintasun planaren garapena bermatzeko, urtero kudeaketa plan zehatza egingo da. Berdintasun arloak zehaztuko du urteko plana zein izango den, eta gainontzeko egiturekin kontrastatuko du, ardurak banatzeko: Gizarte Ekintza, Berdintasun Mahaia, Sail artekoa eta udaleko sailak. Horiekin urteko bilera bat egingo da, eta bertan ekintza zehatzak eta epeak zehaztuko dira.

Horrez gain, planaren garapenerako honako guneak izango dira:

- ▶ Berdintasun arloko teknikaria, Gizarte ekintzakoa eta zinegotziaren artean koordinazio jarraitua bermatu. Hilean behin bilera.
- ▶ Hilabeteroko bilera sail artekoan

Planaren ebaluazio jarraia bermatzeko, urtero Kudeaketa planaren gaineko balorazioa egiteko bilerak egingo dira. Bi izango dira; bata, udal ordezkariekin, eta bestea, udaleko teknikari guztiekin.

Pasaiako II. Berdintasun Planaren iraupena bukatzen denean, urte guztietako ebaluazioa egingo da.

Ebaluazioa egin ahal izateko, honako inpaktu adierazleak bildu ditugu. Horiek oinarri hartuta egingo dira saioak.

HELBURU NAGUSIAK

ADIERAZLEAK

Genero ikuspegia txertatzeko formazioa eta trebakuntza eskaintzea

Zenbat ikastaro egin diren, zenbat ordukoak izan diren, asebetetze maila zein izan den, udal sailetan eragin dituen aldaketak/ekintza berriak, zenbat pertsonen parte hartu duten.

Lan prozeduretan genero ikuspegia txertatzea

Udal komunikazioa genero ikuspegia txertatzea.

Komunikazioa irizpideak definitu diren edo ez, zenbat sailekin egin den lana.

Kontratu, hitzarmen zein diru-laguntzetan genero ikuspegia txertatzea.

Klausula sozialak txertatzeko prozedurak adostu diren edo ez, zenbat klausula aplikatu diren.

Udaleko datuak generoaren arabera bereizita jasotzea, genero azterketak egiteko.

Zenbat inprimaki egokitu diren.

Aurrekontuak genero ikuspegitik lantzea.

Zenbat igo den aurrekontua, beste sailetan genero ikuspegitik egindako ekarpena.

Sailen arteko koordinazioa eta elkarlanerako guneak sortzea

Sailen arteko koordinazioa eta elkarlanerako egitura iraunkorrak indartzea.

Sail artekoaren maiztasuna, berdintasun arloa eta sailen arteko bilerak, parte hartzaile kopurua.

Sailen arteko koordinazioa eta elkarlanerako guneak sortzea.

HELBURU NAGUSIAK

ADIERAZLEAK

Udalaren lan arloan berdintasun ikuspegia txertatzea

Udaleko langile (Teknikari, langileak eta kontratatutakoak) guztien artean erantzunkidetasuna sustatzeko neurriak aztertzea.

Neurri kopurua, zenbat aplikatu diren, asebetetze maila.

Langileen arteko aniztasuna errespetatu eta jazarpena prebenitzeko neurriak eta egiturak errebisatu.

Errebisatu den edo ez, egituren gaineko azterketa egin den edo ez, egituren eraginkortasuna kasuak kudeatzeko.

Kontratazio publikoetan genero irizpideak txertatu.

Zenbat irizpide ezarri diren, plegu publikoetan txertatu diren edo ez.

Sailetan genero ikuspegia txertatzea: Zehar lerrotasuna

Sail bakoitzaren lan prozedurak, ikuspegiak eta plangintzak aztertzea.

Sail bakoitzarekin bilerak, sail bakoitzeko plangintzak, sail bakoitzaren inplikazioa berdintasun planarekiko.

Emakumeen ahalduntze indibidual eta kolektiboa sustatzea

Pasaiako Jabekuntza eskolako erronkei heltzeko prozesuak abiatzea.

Parte hartzaile kopurua, parte hartzaileen perfila, ikastaro kopurua, ildo estrategikoak zehaztea edo ez.

HELBURU NAGUSIAK

ADIERAZLEAK

Emakumeen partaidetza sozial eta politikoa handitzea eta inzidentziarako gaitasuna garatzea

Pasaiako berdintasun mahaia indartu.

Mahaiaren maiztasuna, parte hartzaile kopurua, perfila, formazio kopurua.

Emakumeen parte hartze sozial eta politikorako dituzten oztopoen gaineko hausnarketa.

Azterketa egin den edo ez, oztopo horiei aurre egiteko martxan jarritako neurriak, elkarteekin egindako lan saioak, parte hartzaile kopurua, perfila, udal ordezkariekin egindako lan saioak, parte hartzaile kopurua.

Mugimendu Feministaren aitortza eta elkarlana areagotzea

Pasaiako emakumeen etxeko prozesua abiatzea.

Prozesua abiatu den edo ez, espazioen gaineko azterketa egin den edo ez, beste espazioen prozesuetan Emakumeen etxearen inguruan hitz egin den edo ez, beste espazioen kudeaketan Berdintasun Arloak parte hartu duen edo ez.

Zaintza lanen demokratiziorantz pausoak ematea

Zaintza lanen balio sozial eta politikoa aitortzea.

Sentsibilizazio kanpaina kopurua, Ekonomia feministarekin lotutako ekintza kopurua, Ongi zaintzeko eta maitatzeko taldea bai edo ez, parte hartzaile kopurua, asebetetze maila, *Herrilaben* Berdintasun arloaren inplikazioa.

HELBURU NAGUSIAK

ADIERAZLEAK

Gizon eta emakumeen arteko erantzunkidetasuna sustatzea

Zaintza lanen banaketa justuago baten-ranzko prozesuak abiatzea.

Guneak sortu diren edo ez, erantzunkidetasuna-rekin lotutako ekintzak bai edo ez, gizon kopurua, perfila, maskulinitate tailer kopurua, mediazioa martxan jarri den edo ez.

Hezkidetza programak herrian sustatzea

Herriko ikastetxeetan hezkidetza planak sustatu.

Eskubidean programan hezkidetza txertatu den edo ez, hezkidetza programak martxan jartzeko prozesuak abiatu diren edo ez, inplikaturako eskola kopurua, ikastetxeetako arduradunak izendatu di-ren edo ez, perfila, udalaren baliabide ekonomikoen protzentajea.

Emakumeen autonomia ekonomikoa sustatzea

Eskualdean eta herrian enplegu politiketan genero ikuspegia txertatu.

Oarsoaldeako enplegu mahaian parte hartzea, mai-ztasuna, ekintza proposamen kopurua, inplemen-tazioa, etxeko langileei begirako ekintzak, etxeko langile kopurua, formazio kopurua.

HELBURU NAGUSIAK

ADIERAZLEAK

Indarkeria matxistaren prebentzioa

Indarkeria matxista prebenitzeko sentsibilizazio lana egitea.

Kanpaina kopurua, kanpainak egiteko espazioa, trebakuntza saioak, parte hartzaileak, perfilak.

Indarkeria matxistak Pasaian duen eraginaz azterketa egitea.

Azterketa lerro berri kopurua.

Emakumeei arreta integrala eskaintzea

Arreta integrala bermatzeko bitartekoak eskaintzea.

Gida aurkeztu den jende kopurua, herritarrei baliabideen berri eman zaien edo ez.

Indarkeria matxista bizi duten emakumeen arretaren hobekuntzarako erakundeen arteko jarduera eta koordinazioa protokoloa indartu.

Protokoloa onartu den edo ez, sinatzaile kopurua, erasoen aurreko eraginkorra izan den edo ez, komunikazioa landu den edo ez, koordinazio mahaia bilera kopurua, parte hartzaile kopurua.

Indarkeria sufritu duten emakumeen erreparazioa

Indarkeria matxista sufritu duten emakumeen erreparaziorako osatze estrategiak diseinatzea.

Baliabide berri kopurua, ekimen kopurua, parte hartzaile kopurua.

PLANAREN KOMUNIKAZIOA

Pasaiako II. Berdintasun planaren arrakastarako gakoetako bat, komunikazioan datza; hots, herritarrek eta udala osatzen duten teknikari, langile zein ordezkari guztiek izan behar dute horren berri. Horretarako, honako prozedura jarraituko dugu.

Behin Pasaiako II. Berdintasun plana onartuta, horren berri emango da:

- ▶ **Udaleko langileekin** plana bidali eta sail bakoitzarekin bilera bat egin.
- ▶ **Ordezkari politiko** guztiei planaren txostena bidaliko zaie. Gainera, haiekin aurkezpen bat egingo da.
- ▶ **Berdintasun mahaiko** kide guztiei planaren txostena bidaliko zaie. Gainera, haiekin aurkezpen bat egingo da.
- ▶ **Jabekuntza eskolako** kideei planaren erreportajea bidaliko zaie.
- ▶ **Herritarrei**. Plana eskura izango da udaleko web gunean.
- ▶ **Komunikabideak**. Prentsa agerraldia egingo da.



www.emagin.eus

emagin@emagin.eus

(+34) 943 59 09 02